



Mugikortasun Astean ekintza egitarau arrakastatsua.- Egun hauetan Mugikortasunaren Astea ospatzeko hainbat ekintza burutzen ari dira. Mantangorri zerbitzua doan izan zen asteartean, asteazkenean Okendon haurrentzako jolas ugari izan ziren eta atzo berriz, Kale Nagusia kotxeentzat itxi eta jolasak izan ziren. Herri kiroletan aritzeko aukera izan zuten haur eta gaztetxoek, futbolearen ibilbideak, baita segway-an ibiltzeko zirkuituan ere. Azken honek izan zuen arrakasta gehien eta ilara luzeak izan ziren hauetan ibiltzeko. Gaurkoan ere ekintzak izango dira, bizikleta festa egingo da 16:00etatik aurrera Okendo plazan eta bertan ere bigarren eskuko bizikleten azoka txikia antolatuko da. Bizikletaz gain, osagarriak onartuko dira eta saldu zein trukatu ahal izango dira. Honetan parte hartzeko deia luzatzen du Udalak eta materiala 15:30etatik aurrera uzteko eskaera egiten da.

3 KUKUKA

Antzerki eta dantza eskolaren ikasturte berria

Kukuka Antzerki eta dantza eskolak urrian hasiko du ikasturte berria. 60 talde, 700 ikasle eta 22 irakasle izango dira dantza eta antzerkiaz gozatzen. Gainera, Usurbilen egiten den Topa Eszenikoan parte hartu eta Lasarte-Oriara antzezlan bat ekarriko dutela jakitera eman zuten.



4-5 EUSKARA

Buruntzaldea euskaraz web atari berria eskura

2008an jarri zuten martxan www.buruntzaldea.org web orrialdea Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek elkarlanean. Oraingoan itxura berria aurkezten du eta herri bakoitzeko kirol eta euskara arloko informazioa aurki daiteke bertan modu errazean.

6 KIROLA

Areto futbolekoak prest denboraldiari ekiteko

Areto-Futboleko taldeak prest dira 2013-2014 denboraldiari hasiera emateko. Aldaz H.K. taldeak asteburu honetan hasiko du lehia Nazional mailan. ISU Leioako taldeak berriz, hurrengo asteburuan du Gipuzkoako Ligako lehen jardunaldia. Bi taldeek lan txukuna egitea espero dute.

Zitek

**HOBETU NAHI?
LAGUNTZA KLASEAK**

**Zientziak eta hizkuntzak
Ikasteko teknikak**

Goikale 12 behea • 20160 Lasarte-Oria
www.zitek-akademia.com

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxa: 943 372521



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
 - Instalazio elektrikoak

Neure kabuz



Gorka Lasarri
Jule

Amaren sabelari abesten nion aurrena. Handitzen zihoan heinean, abestuz gain, hitz egin, ferekatu, laztandu, babestu. Bagenekien han barnean entzuten genituen taupadatu ahul eta bizkorrak, naturaren opari, doa, mirari, izadiaren xede, zirela.

Amak sabelean ernaldutako hazia bizigai bilakatu, argitzera erditzean erditzeza eman zen. Amaren erraitara sutuki atxikitako zilbor hestearen eteteak, negar-zotin xalo baten ondoren, arnas berri batez ase zuen gure ito-larria, eta bizi berria sortu.

Gorputz hura hain zen nimoño, ahul, hauskor, ezen amildegi baten azken muturrean hari etenkor batek zintzilik bailegoen zaintzen genuen uneoro. Gure ezjakintasunak, zalantzek eta kezkek betetzen zuten zeregin berrien zakua, eta bestetik, negarrez, keinuz eta irriz gure etxeko gela eta zokoak.

Eguneroko dema dugu inkomunikazioa. Berak komunikatu nahi eta guk, ostera, ulertu ez. Bizitza aldatu zaigu, bai, batzuetan ekaitez zeru eta bestetan zorion-itsaso. Baina eguneko ordu luzeak emango nituzke gure ohe ondoko sehaska kulunkaria betetzen duen lo eztiari begira.

Azoka txikia

Lan-eskaria

- Paperak dituen neska eskaintzen da orduka edo interna modura lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 666 708 963.
- Lan bila nabil, interna, gaez, orduka lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zainduko nituzke. Asteazken zehar edo asteburuetan. Harremanetarako, 675 625 919.
- Astearte, asteazken eta ostiraletan arratsaldetaz lan bila nabil, zaintzaile zein garbiketaria lan egingo nituzke. Erreferentziak eta paperak ditut. 619 803 199
- Etxean garbiketaria lan egin edo pertsona

Zorion agurrak



Unax

Zorionak pottoko! Lau urte jadanik! Asko maite zaitugu! Aitaxo, amatxo, Oier eta Maddi.



Nahia eta Pili

Handitzen, handitzen... Urte bat gehiago ez da ezer! Zorionak bie! Ttakuneko lankideen partetik.



Gorka

Zorionak txapeldun! Familia eta lagunekin ondo pasa eta tarta asko jan!



Gabriela eta Idoia

Zorionak eta muxu handi bat. Tarta prest eta ondo pasa zuen eguna!



Malen

Zorionak printzesa!! Zazpi muxu pottolo etxeko guztien partetik! ondo pasa zure eguna!



Unai

Zorionak! Sei muxu pottolo familiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

nagusiak zainduko nituzke interna moduan. Harremanetarako, 634 278 198.

Eskaintza inmobiliarioak

- Apartamentua salgai Oriako auzoan. 43 metro karratu. Logela, sala-sukaldea, bainua, garajea eta trasteleku. Etxebiden izena emanda izatea beharrezkoa. 102.000 euro. Harremanetarako zenbakia, 608 878 512.
- Garajea alokatzen da erdigunean: itxia bi autorentzat. 686 674 552
- Garajea alokatzen da Atsokabarren, Garaiokoetxe ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. 943 36 54 76/659 021 945

Bestelakoa

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoan. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943376888 / 646645445 (Maria)
- Maila eta adin guztietarako ingeleseko klaseak eskaintzen ditut. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.
- Betaurreko graduatuak galdu dira. Montura txikia dute eta Abend inguruan galdu nituelako uste dut. Norbaitek aurkitu baditu, eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. 943 370 525 edo 943 007 604

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Irati Salsamendi Ateixe, irailaren 16an.
- Meldry Odei Videá Cruz, irailaren 13an.
- Amets Urrezola Maiz, irailaren 11ean.
- Markel Murillo Vegas, irailaren 10ean.
- Issur Marquez Ramos, irailaren 9an.



Heriotzak

- Iñaki Alkorta Retegi, irailaren 18an.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 20	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 21	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 22	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 23	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astearta, 24	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 25	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 26	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaitezgi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea
Etzagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasarri,
Ane Labaka, Mañu Arruti,
Aster Odriozola, Jone M.,
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Kukukak indartsu hasiko du ikasturtea

Topa Eszenikako ikuskizun bat herrian urriaren 5ean

Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunek prentsaurrekoa egin zuten 2013-2014 ikasturte berriaren berri emateko. Gainera, Usurbilen egin ohi den Topa Eszenikoan parte hartu eta Lasarte-Oriara jaialdi honetako antzezan bat ekarriko dutela ere jakitera eman zuten.



Kukukako kideak, Alex Tello eta Itziar Elias EHAZE-ko koordinatzaileekin.

Nerea EIZAGIRRE

Kukuka Antzerki eta dantza eskolak urrian hasiko du ikasturte berria. 60 talde, 700 ikasle eta 22 irakasle izango dira dantza eta antzerkiaren gozatzen.

Dantzan hiru lerro lantzen dira, euskal dantza, euskal dantza-sorkuntza eta dantza garaikidea eta hauetan taldeak mantendu edo gehitu dira. "Euskal sorkuntzan taldeak gehitu dira. Duela bost edo sei urte hasi ginen esperimentuarekin eta herriak oso ondo erantzun du. Egun, LH4tik helduetaraino taldeak daude" Maider Oizartabalek esan bezala.

Kukukako arduradunek jedeo animatzen dute izena ematera, "tokia dago" bereiziki, helduen taldean. "Antzerkian, lehenengo urratsa hasiko duen talde bat egongo da eta antzerkian hasi nahi duenarentzat aproposa izango da".

Kukukan izena emateko, telefonoz 655 847 345 zenbakian edo email bat bidalita, kukukaeskola@hotmail.com helbidera.

Hitza

Bestalde, Joxe Mari Agirretxe berrikuntza nagusia aurkeztu

zuen, Udalarekin sinatuko den hitzarmena. "Garrantzitsua da guretzako, egindako lanari errekonozimendu ofiziala delako". Honekin bitartekoak lortu eta lan egiteko marko egonkorra sortuko da, "gure lanari babesa eman eta udal instalakuntzen erabilera arautzen da".

Kukuka-k hitzarmenean puntu bat gehitu nahi duela azpimarratu zuten, "Lasarte-Orian antzerki edo dantza amateurraren egitaraua egotea nahiko genuke, hilero ekitaldi bat egon dadin". Hau Udalarekin hitz egiteko dago.

Topa eszenika

5. Topa eszenika herrian izango dela aurreratu zuten ere. Hau aurkezteko Alex Tello Usurbilgo antzerki ekintza taldeko kidea eta Itziar Elias EHAZEko koordinatzailea izan ziren.

Irailaren 25etik urriaren 5era Usurbil, Añorga eta Lasarte-Orian antzerki eta dantza ikastaro zein ekitaldiak izango dira. Topa eszenikoan formakuntza bere tarte du, "aurten ikastaroak Usurbilen egingo dira soilik, baina etorkizunean Añorga eta Lasarte-Orian ere egitea da ideia". Hauetan puntako

profesionalak izango dira, horien artean, Maider Oizartabale. Antzerki edo dantza zaletu, zein ikasleei zuzendua dira eta izena eman edo informazio gehiago jasotzeko topaeszenik@gmail.com.

Ikuskizunak

Kalitate handiko ikuskizunak izango dira eta "merke". Saio gehienak 5 eurotako sarrera dute, "Maddi eta Antton" antzezlanaren doan da. Antzerki eta dantza ikuskizunetan azpimarragarriak dira Kukukako dantza taldeek irailaren 28an, Sutegin eskainiko duten emanaldia edo urriaren 4 eta 5ean, Añorga eta Lasarte-Orian eskainiko diren lanak. Urriaren 5ean, "Poza" antzezlanaren eskainiko du Metro koadroko kolektiboak Manuel Lekuonan 20:00etan.

Alex Tellok aurreratu zenez, "hurrengo urterako ideia egitarau koordinatua egitea da". Azkenik, Itziar Eliasek adierazi zuenez, elkarteak euskal antzerkia bultzatzeko gria mantenduko du.

Topa eszenika antolatzen duten eragileek herritarrek gonbidatzen dituzte parte hartu edo ikuskizunak ikustera gerturatzeko.

UDALA

Udaletxe berriaren inaugurazioa gaur

Abuztuaren 21ean ireki zen Udaletxe berria eta aste horretan jarri ziren zerbitzuak martxan, baina eraikina ez zen ofizialki aurkeztu.

Beraz, gaur 19:00etan Mercero plazan aurkezpen ekitaldia antolatuta du Udala. Ekitaldia xumea izango dela aurreratu zuten alkateak eta helburua "Udal eraikin berria Guztiontzat aldarrikatzea. Aurkezpenaren herritarrei izango dute hitza eta beraien bihurtuko dira ekitaldi horren protagonista nagusi".

GAZTELEKUA

Entsegu gelak herriko taldeentzat

Gaztelekua herriko musika taldeei zabaldu nahi zaie. Hau dela eta eraikin berriaren dauden bi entsegu gelak, azken hila-beteotan hainbat soinu froga egin ostean, erabiltzeko prest daudela jakitera eman dute udaletik. 18 m. karratuko entsegu gelak dira Gaztelekuko sotoan kokatuak daude eta bakoitzak instrumentuak uzteko biltegi bat ere badu.

Gaztelekuan entsegetzeko herriko edozein musika taldek eman dezake izena, estilo edo taldekide kopurua edozein dela. Izena ematen duten guztien artean Lasarte-Oriako 30 urteik beherako musikariek lehentasuna izango dute.

Eskaerak iraila osoan zehar aurkeztu daitezke irailaren 30a azken eguna izanik, musika@lasarteoriasarean.eu-ra mezu bat bidalitz. Bertan, taldearen izena, partaide kopurua, hauen izen-abizenak eta entsegatu nahiko luketen egun eta orduen azalpen bat gehitu beharko dira.

IKASTAROAK

Kultur ikastaro eskaintza zabala

Lasarte-Oriako Udalak 2013 urteko azken hiruhilabeterako eta iraupen luzeko kultur arloko ikastaroak aurkeztu ditu. Gabonetako apainketa, stretching-a, oroimen tailerra, zeinu hizkuntza edo sabel dantza dira lasarteoriatarrek hiruhilabete honetan egin ditzaketan ikastaroak.

Hauetaz gain, iraupen luzeko bi ikastaro ere eskaintzen ditu Kultura sailak, egur taila eta irakurketa kluba.

Kultur arloko arduradunek gogoratzen dute, batetik ikasleak berak erosi behar dituela materialak eta bestetik ikastaro guztiak hastapenekoak direla.

Ikastaro hauen prezio, egur taila izan ezik, 27,35 eurotako da errolatuak dauden pertsonentzat, errolatuak ez daudenek 48,16 euro. Egur tailaren kasuan, 127,44 eurotako da matrikula eta errolatuak ez daudenek, berriz, 212,25 euro ordaindu behar dituzte.

Matrikulazio kultura.lasarte-oria.org webgunean egingo da. Epea astelehenean zabaldu zen eta azken eguna urriaren 4a izango da. Ikastaro guztietan ikasle kopurua mugatua da.

DANTZA

Udal ikastaroetan izena eman daiteke

Udalak 5 urte baino gehiago duten haur eta gaztetxoei zuzendutako dantza ikastaroak eskaintzen ditu.

Adinaren arabera taldeak dira, horrela 5 urteko haurrek asteartea eta ostegunetan 17:30etik 18:30era dituzte saioak; 6 urteko taldeak, berriz, asteartea eta osteguna 18:30etik 19:30era; 7 eta 8 urte gaztetxoek hiru saio, astelehena, asteazkena eta ostiralean 17:15etik 18:15era; 9 urtekoek ere astelehena, asteazkena eta ostiralean izango dute entsegu, baina 18:15etik 19:15era eta zaharrenek astelehena, asteazkena eta ostirala 19:15etik 20:15era.


Matrikulatzeko epea astelehenean hasi eta urriaren 4ra bitartean izango da Manuel Lekuonan. Lasarte-Orian errolatutakoak 30,90 euro ordaindu beharko dituzte hilean eta, errolatu gabek 53,13 euro. Informazio gehiago www.lasarteoriasarean.eu orrialdean.

JOSTUNGINTZA

Jantzi tradizionalak egiteko tailerra

Ttakunek urtero arrakastaz antolatzen du jantzi tradizionalak egiteko tailerra. Aurten ikastaro urriaren 1ean hasiko da eta astearte eta ostegunetan burutuko da Jone Artolaren gidaritzapean 15:30etatik 17:30etara.

Izena ematea gaurtik egin daiteke Ttakunen, kultura@ttakun.com eta 943 371448 zenbakian.




Islada Ezkutatuak taldea eta udalaren arteko hitzarmena. Udalak eta Aldundiak herriko Islada Ezkutatuak taldearen lana babesteko dute aurten ere. Islada Ezkutatuak taldeko kideek gerra eta ondorengo urteetako oroimen historikoa jasotzen jarraituko dute lekuko testigantzak eta artxibategietan ikerketa lana burutuz. Euren jardunerako 10.000 euroko laguntza izango dute. Udalak taldeak lortzen dituen ondorioen zabalkundea egingo du etxetara bi eskuorri helaraziz martxo bitartean. Sinadura ekitaldian herritarrek animatu nahi izan zituzten izan ere lekukoak behar dituzte, argazkiak, materiala etab.



BURUNTZALDEA EUSKARAZ WEB ORRIALDEA

Euskarak, atari eraberritua Buruntzaldean

Bailarako eskualtegiak matrikulario kampaian martxan duteela, Martin Ugaldel XVII. Ipuin Lehiaketan parte hartzeko espia irekia dagoela, hauek eskaratuak buruntzaldea Euskaraz web orrialdean sartu eta aurki dezakegune. Baita non zer dagoen ere. Herri herri, egun bakoitzen edota ekitaldi motaren arabera, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen deitu diren hitzordien berri jaso daiteke. Musika emanaldiak, hitzaldiak, jaiak, txapelketak, erakusketak, ikuskizunak, ikastaroak... Aipatu sei udalerrietako ekitaldi eskaintza klik batera dugu, Buruntzaldea Euskaraz aitari. Esku eskura baita, euskarari loturiko diru-laguntzen informazioa, euskaraz ikasteko baliabarrak dagoen eskaintza, merkataritza edota ospitalitza alokariak eskaintzeko aukerak, hartzaile ezberdinei zuzenduriko euskarazko sareko baliabideak... Hori eta gehiago eskaintzen du egun, **Buruntzaldea Euskaraz**.



Aurkitu atariak ere berrantolatatu dituzte.

“Bost urte bete ditu web orriak eta itxuraz berritu dute”

Jarriatiko kampaia eta egitasmoen estera. Baita teknologiko berritzaileak berrantolatzen doaz, gaur nobedatua dugu, bihar zaharkitua geratu liteke. “Buruntzaldea Euskaraz” atariak bost urte bete ditu jada, eta goitiki behereko errepasoa eman diote egitasmo honen bultzatzaileek. Itxuraz berritu dute, baita eduki aldetik ere. Web orriak eskaintzako arlo antzerako informazioa berrantolatatu dute, helburu nagusi batenkin, “bistari bakoitzak aurkitu nahi duena eraz topatzea eta informazio argia” jaso asmoz.

Itxura garrantzitsua, baina edukia ere gehiago

Hartzailea, edo pantaila

Orain, sare sozialetan ere bai

Informazioa kontsultatzeko bakoitzi ere bultzatzen du atari eraberritua. Lehiaketa eta egitasmoetan izena emateko aukera baita, euskarari maita ere ezagutuko daiteke. *Automatikoki* izeneko atalean, *Edoia* sei udalerrietako kultur agendak sartu, eta zenbait ekitaldiarako sarerak erosteko auker

ra eskaintzen du guneak. Hain ere, web orriak idazten duen berritzaile nagusia, sare sozialetara eginkor jautzi du. Aurterapauso garrantzitsua lantzeko esanetan, “Gaur egun sare sozialetan egotea oso beharrezkoa da. Hauetako bakoitzi erabilgarriak izan behar dira, eta bide batez webgune bakoitzaren erak

izea”, Hetalabide lanak bakoitzi ere berritzaile nagusia, sare sozialetara eginkor jautzi du. Aurterapauso garrantzitsua lantzeko esanetan, “Gaur egun sare sozialetan egotea oso beharrezkoa da. Hauetako bakoitzi erabilgarriak izan behar dira, eta bide batez webgune bakoitzaren erak

izea”, Hetalabide lanak bakoitzi ere berritzaile nagusia, sare sozialetara eginkor jautzi du. Aurterapauso garrantzitsua lantzeko esanetan, “Gaur egun sare sozialetan egotea oso beharrezkoa da. Hauetako bakoitzi erabilgarriak izan behar dira, eta bide batez webgune bakoitzaren erak

Hau da helbidea: euskaraz.buruntzaldea.eu

egin edo eskaintzen dena” adierazi dute Buruntzaldeko udalariak. Diseinua larri duen enpresatik ere, web orrialdearen itxura berritua baino nabarmen duen garrantzia nabarmen duen dute. “Edukia da web gune honen altxorra. Hemen kontsultatu daiteke eskualdeko euskarazko sailen materiala eta informazio guztia. Irakurlearentzat interesgarriak izan daitezkeen edukia zintzilikatzen dugu, hala nola eskualdeko euskarazko lehiaketak...”, adierazi dute lantzaileak. Lehen sakabana-tua zegoen informazioa biltzeko lanak ere bideratu dituzte. Lehen “barreiatuak” zuden sektoreko hiztegiak atal bakar batean jaso dituzte. Diru-laguntzen inguruko zehaztasunak ere gauza bera egin dute. Aurreantzerako informazio berrantolatatu liteke atal ezberdinetatik sartuta”.

Bizia, dinamika

Buruntzaldeko udalariak jendegarrian aurkitu eta jada abarriari dagoen atari honetako berritzaile nagusi egin dira. Baina ez guzitiak, oraindik lanok ez dituzte amaitu. Atal bakoitzeko informazioa berrantolatatzeko dute Buruntzaldeko udalariak. Edukiaren zati nabarmen bat berritu dute, baita ildo beretik, lantzaileekin esanetan, atariak aldian aldian eguneratzen jarraituko dute. Web guneak bizia, dinamikoak izaten jarraituko du honenbestez.



Hau da helbidea: euskaraz.buruntzaldea.eu

The screenshot shows the Buruntzaldea Euskaraz website. At the top, there's a navigation bar with 'BURUNTZALDEA' and 'EUSKARAZ' tabs. Below that, a 'KULTUR AGENDA' section for 2013/09/02 features 'ALBISTEK' and 'DENAK IKUSI' buttons. A main article titled 'Martin Ugaldel XVII. Ipuin Lehiaketan parte hartzeko espia zabalik da' is visible. To the right, there are several 'DENAK IKUSI' buttons for different categories like 'DIRU-LAGUNTZAK', 'EUSKALDUN AKTIBOAK', and 'ZURETZAT'. At the bottom, there are social media icons for Facebook and Twitter, and a footer with contact information and a copyright notice for 2013 Buruntzaldea Euskaraz.

LABURRAK.-

Santi eta Martin bola-joko oroimenezkoa igandean

Ostadar SKT-ko bola-joko atalak X. Santi Garcia eta Martin Egaña oroimenezkoa antolatatu du. Igandean goizeko 10:00etatik aurrera Kirol guneko bolatokian jokatuko da txapelketa.

Honetan bi maila nagusi izango dira, hots, gizonezkoak eta emakumezkoak. Herriko bolariet gain, Gipuzkoa osotik etortitakoak espero ditu Jose Antonio Montes, antolatzaileetako batek, lehiaketa irekia izango baita. Hala ere, herriko bolari onenek sariak izango dituzte.

Izen-ematea Michelingo bolatokian bertan egin behar da 10:00etatik 11:30era.

Zumba saioak doan kirol bazkideentzat

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jarduera berria aurkeztu du 2013-14 ikasturteko, Zumba. Hain zuzen Udal Zerbitzuak zenbait bazkide egindako eskaerari erantzunez jarri du jardue-
ra hau martxan.

Zumba jarduera fisiko aerobikoa da, dibertigarria eta erri-
moztu betea. Ariketa aerobikoa ditu oinarri eta helburuen artean gure gorputza indartzea, garatzea eta malgutzea ditu. Oso jardue-
ra muskala da eritmo latinamerikarretan (salsa, merenge, sanba...) oinarritua.

Modalitate berri hau ezagutzera emateko Kirol Zerbitzuak interesa izan dezaketen pertsonentzat zumba klaseak antolatatu ditu irailaren 24 eta 26an, arratsaldeko 17:15etik aurrera gimnasia gelan eta 23, 25 eta 30ean goizeko 11:00etan Udal Kirolded-
giko pistan. Kirol bazkideentzat klase hauek doan izango dira.

Gomez garaile
Porrontxoetako kros
eta Herri Biran

Asteburu honetan ere Lasarte-Oriako atletak ez dira geldirik egon. Porrontxo jaietako kros-
sa, Urnietako Herri Bira edo Plazaolako VI. Maratoi erdian izan ziren lehiaketa eta hauetako bietan, Porrontxo eta Herri Biran Raul Gomez Margallo herritarra izan zen garaile.

Baina Raul ez gain, beste bi herritar ere izan ziren lasterketa hauetako podiumean. Porrontxoetako kros-
sean Nieves Cívicos bigarren postua eskuratu zuen emakumeen mailan eta Herri Biran Jose Luis Delgado herritarra hirugarren izan zen.

Aipatzekoa da ere, Gomez udan lasterketatik lasterketara ibili dela. Abuztuaren 24ean, Ergobiako kros-
sean, bigarren izan zen eta abuztuaren 31an, Guadalupeko XXXVII. igoeran parte hartu zuen eta laugarren izan zen.

Bestalde, irailaren 7an izan zen Zumaia-
ko Triatloian Pili Bodegas-ek laugarren postua lortu zuen orokorrean eta betera-
no mailako lehenengo izan zen.



Gomez eta Cívicos Porrontxoetako sarietara.

ARETO-FUTBOLA.-

Areto-futbola ere martxan

Aldaz H.K. Tolosala izango du aurrez aurre larunbatean

Areto-Futboleko taldeak ere prest dira 2013-2014 denboraldiari hasiera emateko. Aldaz H.K. taldeak asteburu honetan hasiko du lehia Nazional mailan. ISU Leihok-ek berriz, hurrengo asteburuan du Gipuzkoako Ligako lehen jardunaldia.



Lasarte-Oriako areto-futbol taldeek Tolosako taldeen aurka hasiko dute denboraldia.

TXINTXARRI

Aldaz H.K. taldeak larunbate honetan Tolosala Hirukide taldearen aurka emango dio hasiera denboraldiari.

Oscar Garcia entrenatzaileak azaldu digunez, aurrendenboraldian ederki entrenatu du taldeak.

Hala ere, partida gutxi jokatuko dituzte eta esate baterako, lehenengo asteburuan Intxaurren jokatutako torneoan taldeak ez zuen espero zen emaitza lortu.

Izan ere, adierazi digunez, bi baja garrantzitsu izan dituzte, "urte askotan egon diren Gonzalo Serres eta Roberto Perez joan dira".

Baina Aldaz-ek aurpegi berriak dituela ere jakitera eman digu, "gurekin jokatuko zuen Mikel Escribano; Aierrun jokatzen zuen Lezoko gazte bat eta Ibarra taldeko jokalaririk ere".

Hauek taldeari kalitatea emango diotela aipatu du, baina bajak kontuan izanik, tal-

deak iazko maila ematea espero du.

Denboraldi gogorra

Helburu nagusia aurten maila mantentzea izango dela azpimarratu du. Izan ere, denboraldia gogorra izango da. "Nahiz eta Ibarra edo Santurtzi A mailan egon, Euskal Ligatik igo diren taldeak gazteak dira eta gainera, atzean talde garrantzitsuak dituzte".

Lehen partida, aipatu legez, Tolosalaren aurka jokatuko dute larunbatean kiroldegian.

Aldaz H.K.-ko mutilek ongi ezagutzen duten taldea da, "iaz ere lehenengo jardunaldian jokatuko genuen haien aurka, launa berdindu genuen eta joanekoan, 4-5 galdu genuen".

Beraz partida interesgarria eta gogorra izango dela aipatu du Garciak, "Fisikoki oso ongi daude eta gazteak dira".

Lehenengo postuaren bila

Bestalde, ISU Leihok-ek hurrengo astean emango dio hasiera Gipuzkoako Ligari.

Nahiz eta aurrendenboraldia berandu hasi, prest dudelako onartu du Eneko Molina entrenatzaileak. Taldeak ez baitu aldaketa handirik izan, "iazko jokalaririk berdinak ditut. Fitxaje berri bat egin dugu eta agian beste bat egingo dugu".

Molinak aipatu digunez, hiru lagunarteko jokatuko dituzte eta bakarra irabazi dute. "Espero genuen. Gure mailako talde eta bi maila gorakoekin jokatuko ditugu partidak".

Gainera, Gipuzkoako Ligan aldaketa askorik ez dela egon ere adierazi digu, "Laskorain eta Hiruki igo dira".

Beraz, iaz egin bezala, Oartzunekin lehenengo postu-
tuagatik borrokatu beharko dela onartu du. "Baina azkenean partida bakarrera jokatzen da gutzia, ea aurten zorte hobea dugun".

Lehenengo partida Tolosako Hirukideren aurka jokatuko da. "Aurten igo dira eta gauza gutxi dakigu taldeaz. Gure jokoa egin eta partida ongi kontrolatzea espero dugu".

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 21
Michelin, 10:00etan
Ostadar-Sporting Herrera I. Kadetea
Michelin, 12:00etan
Ostadar-Romo
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila
Berio, Donosti, 12:30ean
Ekintza-Ostadar B I. Kadetea
Herrera, Donostia, 15:30ean
Sporting Herrera-Ostadar I. jubenila
Michelin, 15:30ean
Ostadar-Beti Gazte
Jubenilen Ohorezko maila
Michelin, 17:15ean
Texas Lasartearra-Santo Tomas
Lizeoa I. jubenila
Herrera, Donosti, 17:30ean
Asoleus -Texas Lasartearra I. Erregionala

Igandea 22
Michelin, 10:30ean
Ostadar-Eas 08 I. Erregionala
Mendibelz, Orrio, 16:30ean
Getariako Keta-Ostadar Erregional Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 21
Kiroldedia, 18:00etan
Aldaz H.K.-Tolosala Hirukide Nazional III. maila

PILOTA

Ostirala 20
Uarkape, Arrasate, 19:15ean
Arrasate-Intza
Eskuz binaka bikoteka, II. nagusia
Ezker hormako txapelketa

Beotibar, Tolosa, 19:30ean
Aurrera Saiaz I-Intza
Eskuz binaka bikoteka, I. jubenila
Ezker hormako txapelketa

Larunbata 21
Kirol guneko pilotakelua, 16:00etan
Intza-Urnieta
Eskuz binaka bikoteka, II. Kadetea
Ezker hormako txapelketa

ATLETISMOA

Larunbata 21
Tolosa, 10:00etan
Herriko hainbat korrikalarik
Ernioko lasterketa 2013 proban parte hartuko dute.
Pasaia San Pedro, 17:30ean
Herriko hainbat korrikalarik
XII. Faro de la Plata igoera-Juanma

Acuña oroimenezkoan parte hartuko dute.
Irun, 20:30ean
Herriko hainbat korrikalarik II. Gaueko lasterketan parte hartuko dute.

Igandea 22
Uhartea Arakil, 10:00etan
Herriko hainbat atleta
Uhartea Arakil-Beriain V. Kilometro bertikala proban izango dira lehiak.
Usurbil, 11:00etan
Herriko korrikalariek VI. Baxurde kros-
sean parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 21
Larratxo, Donosti, 16:00etan
Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilek XXXVI Larratxo

zirkuia - Udazkeneko Kriteriuma proban parte hartuko dute.

Igandea 22
Biyak Bat elkarteak, 08:30ean
Ostadar SKT-ko zirkulotistik Itziarrera dute irteera.

ERRUGBIA

Larunbata 21 eta Igandea 22
Tarazona
Beltzak Ostadar Errugbi taldeko kadeteek Tarazonara doaz jokatuzera.

BOLA-JOKOA

Igandea 22
Kirol guneko bolatokia, 10:00etan
Santi eta Martin X. Omenaldia jokatuko da.

Agenda

Gaur, ostirala 20, 22:00etan, Okendo plaza



Hilkutxa batean zer egingo zenuke?

"Entre Lombrices" kale antzerkia eskainiko dute Zanguango teatro taldeko lagunek. Uztailean eguraldiagatik bertan behera geratu zen kale antzerkia dugu. Zanguango teatro taldeak antzerkiaren kontzeptu berria ekarriko du Lasarte-Oriara. Kuriositatea mantentzen al da lur azpiak metro bat zaudenean? Azken epaiako pistarik ba al dago? Zein da denboraren zentzua 2 tona lur gainean dituzenean? Galdera hauek eta beste hainbatek erantzun azkar bat eduki dezakete ikuskizun berezi honetan.

ANTONIO MERCERO PLAZA

Ostirala 20, 19:00etan
Lasarte-Oriako Udalak udaletxe berriaren aurkezpen ekitaldia egingo du. Honetan, herriko musika taldeez gozatzeaz gain, "Emozioen horma" osatuko dute herriko elkarteek.



Usurbil

V. Topa eszenika

POTXOENEA KULTUR ETXEA
Asteazkena 25, 16:30etik 19:30era
Oier Guillanek "Ezzenarako idatzi, irudietatik abiatu (1)" tailerra eskainiko du.
Osteguna 26, 16:30etik 19:30era
Oier Guillanek "Ezzenarako idatzi, irudietatik abiatu (2)" tailerra eskainiko du.
Ostirala 27, 16:30etik 19:30era
Maider Oiarzabal Kukuka eskolako irakasleak "Dantza Garaikidea" tailerra eskainiko du.
Larunbata 28, 10:00etik 13:00etara
"Mugimenduak hitz bihurtzen direnean, hitza arnasa, arnasa kolpe, kolpea gihar..." tailerra eskainiko du Miren Gaztañagak.
Larunbata 28, 15:30etik 18:30era
Ander Lipusek "Aktorearen tresnak" tailerra eskainiko du.

Tailer bakoitzaren prezioa 5 eurotako da. Izena ematea topaeszenik@gmail.com helbidean egin behar da.

Lasarte-Oria


Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 20, 21:00etatik aurrera
"More Jaia"-k Bass Music saioa egingo du.
Larunbata 21, 21:00etatik aurrera
Punk rock gaua izango da, lehenik "Ramonetarrak" eta "Los Putos" taldeen kontzertua entzuteko aukera izango da. Ostean, DJ Toño Puñala Ramone-ren saioa.
Ostirala 27, 21:00etatik aurrera
"Syr Trifulca Posse"-ren Hipfunkbreaks saioaz gozatzeko aukera.

Larunbata 28, 21:00etatik aurrera
"Inoren Eron Ni" eta "El Desvan del Macho" taldeek rock doinuak eskainiko dituzte. Ostean, "Man in the attick" eta "Prest dejota" dj-ek elektrojazzrock saioa eskainiko dute.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA
Iraila amaiera arte
Ion Benitez eta Unai Azkarateren diseinu grafiko eta collage-en erakusketa ikusgai dago.



Bestelakoa

OKENDO PLAZA
Ostirala 20
Lasarte-Oriako Udalak antolatuta Mugikortasun astea ospatuko da. Ekintzak:
16:00etan, Bizikleta festa.
17:00etan, Bigarren eskuko azoka.

UDALETXE BERRIRA

Ostirala 20, 17:00etatik 19:00etara
Lasarte-Oriako Udalak udaletxe berria ezagutzeko bisitak antolatu ditu, euskaraz, zein gaztelaniaz. Izena ematea udaletxe berriko erregistroan egin behar da.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da irailaren 24an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, irailaren 27an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte har dezaten.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak entseguak hasiko ditu.
Herriko abesbatzak 16 eta 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu entseguetara hurbildu eta probatzera.

Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izan edo abesten jakitea.
Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Kirol instalakuntzen neguko ordutegia

Udal kirol instalazioetan neguko ordutegia dago indarrean.
Kiroldegia irekiera ordutegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era izango da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan berri, 9:00etatik 13:00etara.
Kirol Gunearen kasuan, ordutegia honakoa izango da; astelehenetik ostiralera 15:30etatik 22:30etara, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandetan 9:00etatik 13:00etara.

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Hauek guztiak Ttakuneko bulegoan daude beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke jasotzera.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Hemeroteka

Duela 1074 ale

Futbol denboraldia hasi dela eta, 1995ko irailaren 2an Ostadar taldeak futbol talde berri baten aurkezpena egin zuen, bigarren erregional mailako taldearena, hain zuzen ere. Eta TXINTXARRI aldizkariak honen berri eman zuen.

Artikuluaren aipatzen denez, "Ostadar taldekoek aspalditik zebiliten buruan bueltaka honelako talderen bat sortzearen beharra".

Talde berri honen entrenatzailea Patxi Lopez zen eta jokalaria herriko areto-futbol txapelketan aritzen ziren herritar gazteak.

Denboraldiko helburuak taldea egitea, sendotzea eta lagunarte polita lortzea ziren. Patxi Lopez entrenatzaileak artikuluaren aipatzen zuenez, "ilusioz eta gutxinaka lan eginaz aurrera jarraitu beharra dafo eta etorkizunean gauza gehiago eskatu ahal izango zaizkio talde gazte honi".

Ostadarreko bigarren erregional taldeko jokalaria hauek ziren: Xabier Otaegi, Jose Mari Zabala, Iker Elorza, Haritz Arregi, Fernando Elvira, Imanol Salsamendi, Txiki Manterola, Jose Luis Salaberria, Asier Goenaga, Aitor Azkonobiet, Xanti Tranche, Arkaitz Illarramendi, Oscar Iglesias,, Jose Miguel Pozo, Rodri Gil, Inaxio Olaiz, Mikel Escribano, Bibi Valin, M. Angel Hiuzi, Robert Iglesias eta Asier Esnaola.

Taldeak 1995-1996 denboraldia kanpoan hasten zutela aipatzen da, Intxaurren taldearen aurka. Bigarren jardunaldia, berri, Michelinek jokatuko zuten.





LarZALDIK
ZALDI TURISMOA

Lartzandieta Baserria
Urdaiaga Auzoa, 44
20170 Usurbil
Tel.: 666 607447
info@larzaldiak.com
www.larzaldiak.com

GPS Koord.
43.266031,-2.067587



ZALDI IRTEERAK
sagardoa
eta
pintxoak
barne

Egin zure planak,
GU
kontuan hartuta

2013 - 2014 Euskara Ikastaroak

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenetik ostegunera.
- AUTO-IKASKUNTZA (mintzamina taldean).

Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren 1., 2. eta 3. maila (EGA).
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

Ikastaroaren iraupena: Irailaren 19tik ekainaren 20ra arte.

Diru-laguntzak ditugu. Galde ezazu!

Matrikulaldia: Irailaren 2tik 18ra

Bulego ordutegia: 08:30-19:15 // tel: 943 36 16 21



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
Beheko kale bidea 1
e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
TF: 943361621



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
EUSKALTEGIA

Euskara

ikasteko aukera

2013-2014

Diru-laguntzak

%40-%75

ona eta merkea

Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beke kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 19tik 18ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 2tik 27ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
ZERBITZUA